

# Avanzar hacia la soberania de nuestra clase. primero de mayo.

HERRI GORRI :: 01/05/2021

**[Euskara]**

## **Gure klasearen burujabetzarantz arrrera egin. maiatzaren lehena.**

Hainbat urte daramatzagu kapitalismoaren “krisi terminalaren” edota 78ko Erregimenaren eraikineko “arrakalen” inguruan entzuten. Esate horien helburua noizbait asmatzea bada, zalantzak gabe lortuko dute, baina ez da izanen klase borrokaren bilakaera baztertzen, proletalgoaren antolaketa politikoa eta ortzi-mugan benetazko alternatiba erreal eta eraginkor bat eratzearen auzia ahantzik, sozialismoa baino ez dena, hain zuzen ere.

Maiatzaren Lehena, modu kontzienteagoan, eta, horregatik, politikoki zein ideologikoki, Proletariotza sistema hau gainditzeko ahalmena duen gizarte-indar gisa baieztatzeko egun bat izan beharko luke. Zer dute amankomunean erretiratu batek pentsio duinen alde borrokan, lan egiten zuen enpresak ixtean lan merkatutik kanpo geratutako langabetu “egitura” batek, alokairu bati aurre egitea eragozten dion lan bat baino etorkizun handiagorik ez duen neska gazte batek, “Lan-bizitza” bateratzeko azpienplegura behartuta dagoen emakume batek, hitzarmenean ezarritakoaren arabera kobrautu arren, hilabete amaieran ozta-ozta ibiltzen den enplegatu batek, edota osasun arloko funtzionario/o batek, eure lan egonkortasunak gain-esplotazioak neurtzen duena? Amankomunean dutena sistema kapitalista bat pairatzea da, non gutxiengo oligarkiko eta basati batek esplotatu, zapaldu eta menperatzen dituen euren botere politiko eta ekonomikoa jarkitzeko.

Oligarkia horrek, botere-bloke horrek, bere interesen gaineko benetako kontzientzia dauka, beren posizioa oso argia eta klase dominatzaile gisa zuzenean mesede egiten dien sistema kapitalista honi eusteko beharraz, alegia. Une honetan kapitalak banku- eta finantza-sektorean kontzentratzezko eta zentralizatzeko estrategian identifikatzen ditugun interesen kontzientzia horrek, diru publikoko 60.000 milioiekin salbatu dituztenak, eta gero, ez dute inongo larritasunik hartu 18.000 lanpostu desegiteko, zuzendarien soldatak, mozkinak eta prebendak modu tamalgarri eta inolako moralik gabe handitzen doazen bitartean.

Klase borroka gori-gori dago, oligarkia eta bloke bat boterean ditugularik, iraganean proletalgoak eta herri-sektoreek eskuratutako eskubide eta askatasunen aurkako oldarraldi bat garatzen, horiek suntsitu nahian, beren negozio esparruak eta bere inpunitatea areagotzeko.

Eskubide sozialen sistemaren defentsa, hots, soldata-eskubideak zein lan eskubideak nola kalitatezko osasun eta hezkuntza publikoak eta unibertsalak, generoen arteko berdintasun errealaren aldeko borroka, pentsio-sistema publiko baten defentsa irmoa eta kontzesiorik gabea, klaseko belaunaldien arteko elkartasunaren oinarri gisa. Modu berean, lan duina nortasunaren, egonkortasunaren eta bizitza-proiektuen garapenaren elementu gisa,

askatasunen eta oinarrizko eskubideen sistema bat babesten duen benetako demokrazia bat, alegia, bizitzen ari garen autoritarismo honen aurrean...elementu politiko horien baitan proletariotza eta herri-sektoreek lubakia egin behar dute, hala edo nola defendatu, baita aurrerago joateko baldintza bezala ere.

Gure burua proletario moduan adieraztea, gure klase burujabetzarantz aurrera egitea da, boterean dabilen blokeari gure emantzipazio-programa ezartzeko eta garatzeko baldintzak sortzea besterik ez dena. Horrek, batasuna eta antolakuntza behar ditu, eta argi izatea badaudela alternatibak eredu basati, esplotatzaile eta zapaltaile kapitalista eta heteropatriarkal honen aurrean.

## [Castellano]

### **Avanzar hacia la soberanía de nuestra clase. primero de mayo.**

#### **POR HERRIGORRI 30 ABRIL, 2021**

Llevamos unos cuantos lustros escuchando hablar sobre la “crisis terminal” del capitalismo, o de las “grietas” del edificio del Régimen del 78. Si el objetivo de estos decires, es el de acertar en algún momento, sin duda lo harán, pero no al margen de la evolución de la lucha de clases, de la organización política del proletariado y de la configuración de una alternativa real y efectiva en el horizonte, que no puede ser otra que el Socialismo.

El Primero de Mayo debiera ser el día en el que de una manera más consciente, y por ello política e ideológicamente, el Proletariado se afirmara como la fuerza social con capacidad potencial de superar este sistema. ¿Qué tienen en común un/una jubilada luchando por unas pensiones dignas, un/una desempleada “estructural” arrojado fuera del mercado laboral al cerrar su empresa, una joven sin más porvenir que un trabajo que le impide siquiera afrontar un alquiler, una mujer obligada al subempleo para conciliar “la vida laboral”, una/un empleado que, aún cobrando según lo marcado por el convenio, apenas llega a fin de mes o incluso un/una funcionaria sanitaria cuya estabilidad laboral es a costa de una sobre-exploitación?. Lo que tienen en común es sufrir un sistema capitalista en el que una minoría oligárquica y brutal explota, opriime y domina para afirmar su poder político y económico.

Esta oligarquía, este bloque de poder posee una verdadera conciencia de sus intereses, de su posición y de la necesidad de mantener el sistema capitalista que les beneficia de manera directa como clase dominante. Una conciencia de sus intereses que identificamos en estos momentos en su estrategia de concentración y centralización de capitales en el sector bancario y financiero que, tras ser salvado con 60.000 millones de dinero público, no les tiembla el pulso para eliminar 18.000 puestos de trabajo, mientras de manera simultánea, aumentan los sueldos, ganancias y prebendas de sus directivos de manera escandalosa e inmoral.

Estamos en plena lucha de clases, con una oligarquía y un bloque en el poder desarrollando una ofensiva contra derechos y libertades ganados en el pasado por el proletariado y los sectores populares, y que hoy quieren destruir para ampliar sus espacios de negocio y su impunidad.

La defensa del sistema de derechos sociales, laborales y salariales, de una sanidad y una educación públicas de calidad y universales, la lucha por una igualdad real entre géneros, la defensa firme y sin concesiones de un sistema público de pensiones como puntal de la solidaridad intergeneracional de clase, el trabajo digno como elemento de identidad, estabilidad y desarrollo de proyectos de vida, una verdadera democracia que preserve un sistema de libertades y derechos fundamentales frente a la deriva autoritaria que estamos viviendo... son elementos políticos en torno a los que el proletariado y los sectores populares deben cavar trincheras y defenderlos a cualquier precio, como condición incluso para ir más allá de los mismos.

Afirmarnos proletariado es avanzar hacia nuestra soberanía de clase, que no es otra cosa que estar en condiciones de imponer al bloque en el poder nuestro programa de emancipación y desarrollarlo, algo que precisa unidad, organización y tener claro que existen alternativas al modelo depredador, explotador y opresor capitalista y heteropatriarcal.

---

[https://www.lahaine.org/mm\\_ss\\_est\\_esp.php/avanzar-hacia-la-soberania-de](https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/avanzar-hacia-la-soberania-de)